# Legazpiko Agenda 21eko Foroa
## Azaroaren 4ko tailerraren akta

Legazpiko udaletxean
18:30etik 20:15era

**Tailerra, labur-labur**:

- *Eguna, ordua, tokia*: azaroaren 4an, 18:30etik 20:15era, Legazpiko Udalean.
- *Parte-hartzaile kopurua*: 24 pertsona.
- *Aztergaia*: Legazpiko Kultur eta Natur Ondarearen Inbentarioa.
- *Garapena eta ondorioak*: Aranzadiren eskutik inbentarioaren ondorio nagusiak ezagutu ditugu, bai eta Legazpiko kultur eta natur ondarea babesteko lehenengo proposamenak ere.



## ● Tailerrean izandakoak

Guztira *24 pertsonak* parte hartu dugu tailerrean, tartean Legazpiko bizilagunak, Udaleko ordezkariak, Aranzadiko teknikariak eta dinamizazio taldeko teknikariak. Talde ugaria eta askotarikoa izan da, eta parte hartzaileen esku-hartzeek argi erakutsi dute taldeak gai honi buruz duen interesa. Beraz, horixe jasoko dugu hemen: *"Legazpiko kultur eta natur ondareak axola digu, balioetsi egiten dugu eta gai honetan sakontzen jarraitu nahi dugu".*

**Eskerrik asko** gaurkoan ere zuen konpromisoa eta elkarlanean aritzeko duzuen gogoa erakusteagatik:

Manuel Fernández (Nagusilan) ◆ Pedro Barroso (Nagusilan) ◆ Mª Jose Cantero (Nagusilan) ◆ Juncal Fernández ◆ Floren Gutiérrez ◆ Joxan Auzmendi (Legazpiko Ingurugela) ◆ Eugenio Gil (Korosti zikloturistak) ◆ Javier Iraeta (GKN Driveline) ◆ Glori Martínez de Guereñu (Buztintegi) ◆ Iñaki Mauleon (Domingo Agirre ikastetxea) ◆ Jose Luis Cid ◆ Mikel ◆ Mª Ángeles Prieto (Buztintegi) ◆ Mª Teresa Pascual ◆ Justino Nogales ◆ Jon Erramun Uribeetxeberria (Udaleko Agenda 21eko zinegotzia)
Sote Plazaola (Legazpiko alkatea) ◆ Inma Hernández (Agenda 21eko teknikaria) ◆ Yoana García, Jon Garin-Barrio, Asier Galdos eta Joseba Garmendia (Aranzadiko taldea) ◆ Iciar eta Zorione (Prometea, SCko dinamizazio taldea).

## ● Landutako gaiak

Gaurko tailerreko gai nagusia *"Legazpiko Kultur eta Natur Ondarearen Inbentarioa"* izan da. Aranzadi elkarteko taldeak Legazpiko Udalaren enkarguz egindako ikerketa da, eta, aurten aztertu beharreko gaien artean, Foroak lehentasuna eman nahi izan dio gai honi.

Gaia bete-betean aztertzen hasi baino lehen, 5 minutu zuzendu ditugu albisteetarako, eta gaurkoan gure ingurukoen lorpenak izan dira nagusi:

**Albisteak**:



- *Haztegi Ikastolak "Eskola Iraunkorra" ziurtagiria jaso du.* Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak ematen dute sari hori; Eskola Agenda 21 ingurumen hezkuntzako programaren barnean, ikastetxeek egiten duten lana saritzen da honen bidez, 100 alderdi ebaluatzen dituen galdeketa batean oinarrituta. Ziurtagiri horrek 3 urteko indarraldia du, eta hiru urte igaro ondoren beste auditoria bat gainditu beharko du ikastetxeak ziurtagiria berritzeko. **Zorionak** hezkuntza elkarte guztiari!
- *Udaleko lan brigadak Ekoscanen auditoria gainditu du*. Enpresei edo erakundeei euren lanean ingurumena errespetatzeko alderdiak hobetzen laguntzeko sistema da Ekoscan araua. Legazpiko brigadaren kasuan, urtero bi helburu zehazten dituzte, eta urte bukaeran kanpoko ikuskari homologatu batek egiaztatzen du helburu horiek bete diren edo ez. Aurtengoarekin, brigadak laugarren ikuskaritza gainditu duenez, Ihobek (Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa) Ekoscan Plus ziurtagiria emango dio. Aurrerapauso kualitatiboa da Udalaren ingurumen konpromisoan; zorionak brigadako langileei!
- *Arkatza elkarteak mendi irteera egin du Aranzadirekin*. Joan den asteburuan elkarteko hainbat kide Beoki mendian izan ziren, Aranzadiko Asier Galdos teknikari laguntzailearekin batera. Hala, ingurumena eta artea uztartuz, taldeak paisaiari, landareei, animaliei eta abarrei buruzko kontzeptuak barneratu ahal izan zituen, euren oihaletan ingurunea irudikatu ahal izateko. Esperientzia bikaina benetan!
- *Udal aldizkariak* Aranzadi elkarteak *"Legazpiko Kultur eta Natur Ondarearen Inbentarioaren"* inguruan egindako lanari buruzko informazioa txertatu du azken alean. Arreta handiz irakurriko dugu!

Albisteen ondoren, ikus ditzagun tailerraren gai nagusiari buruz esandakoak.

## ● *"Legazpiko Kultur eta Natur Ondarearen Inbentarioa"*, **xehetasunak:** ondorioak eta ekintza proposamenak

Zer planteamendu egin da gai hau lantzeko orduan? Bi zatitan banatu dugu:

- *Inbentarioaren ondorioak*. Lehenik eta behin, Aranzadik Legazpiko kultur eta natur ondareari buruz egindako inbentarioaren emaitza edo ondorio nagusiak ezagutu nahi izan ditugu. Horretarako, Yoana Garcíak, Jon Garin-Barriok, Asier Galdosek eta Joseba Garmendiak floraren eta landarediaren, faunaren eta paisaiaren elementu garrantzitsuenak azaldu dizkigute.
- *Ekintza proposamenak*. Ondoren, eta etorkizunari begira, proposamenetan jarri dugu arreta. Inbentarioa abiapuntutzat hartuta, zer ekintza proposatzen ditu Aranzadik Legazpiko kultur eta natur ondarea zaintzeko eta duen balioa emateko? Nola jaso dira proposamen horietan Foro honek 2008ko maiatzaren 22ko tailerrean planteatutakoak?

Ondoren, eta Aranzadikoek emandako datu guztiak hemen jasotzea nahiko zaila denez, atal bakoitzeko ideia nagusiak bildu ditugu. Gehiago sakondu nahi duenak, dokumentu osoa kontsultatu ahal izango du, urte bukaeran Aranzadik Udalari bidaltzen dionean.

## Aranzadiren Inbentarioaren ondorio nagusiak

Metodologiaren ikuspegitik, Aranzadiko taldeak *hiru mailatan* aztertu eta balioetsi du Legazpiko kultur eta natur ondarea:

- *Botanika* (flora eta landaredia): floraren azterketa izan da inbentarioa egiteko oinarri nagusia.
- *Fauna,* arreta anfibioetan eta narrastietan jarriz batez ere.
- *Natur paisaia eta hiri paisaia.*

Zer nabarmenduko dugu maila horietako bakoitzetik?

# Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

**Inbentarioa, BOTANIKAREN atala**:

- *Metodoa:* udaberrian eta udan hainbat irteera egin ondoren eta habitatei buruzko informazioa bildu ondoren, Legazpiko flora-aberastasunaren eremuak balioesten dituen mapa bat prestatu da.

- *Ondorio nagusiak*:
  - Hauek dira *botanikaren ikuspegitik balio handiena* duten eremuak (mapan berde ilunez eta berde argiz):
    - Aizkorri: goiko aldea (harkaiztiak eta bortuak) nahiz baso inguruak (pagoen basoak eta haritz landugabeenak dira nagusi, eta zuhaitz motz asko daude).
    - Oamendi: balio handiko hezeguneak ditu, horietan dagoen landarediarengatik eta haltzadiengatik.
    - Telleriarte eta Brinkola auzoak: kulturaren eta paisaiaren aldetik balio handia dute.
    - Korostiaga iparraldeko magala: pagadiak, hariztiak eta zuhaitz motz ugari daude inguru horretan.




**Inbentarioa, FAUNAREN atala**:

- *Metodoa:* alde batetik, datu bibliografikoak jaso dira (ornogabeei, arrainei, hegaztiei eta ugaztunei buruz), eta, bestetik, narrastien eta anfibioen kasuan, landa lana egin da (aurrez ez baitzegoen horiei buruzko informaziorik). Bi parametro erabili dira eremuen fauna-aberastasuna balioesteko: kopurua eta kalitatea (mehatxatutako espezieen presentziari dagokionez).

- *Ondorio nagusiak*:
  - *Faunaren ikuspegitik balio handiena* duten eremuak bat datoz hein handian botanikaren eremuan zehaztutakoekin. Aizkorri-Aratz eta Oamendi dira.
  - Aitzitik, ingurune hiritarra, landatutako eremuak eta landa zabala dira “pobreenak” zentzu horretan.





**Inbentarioa, PAISAIAREN atala**:

- *Metodoa:* landarediari buruzko mapa hartuko dugu oinarritzat, eta hortik abiatuta, paisaiari balioa ematen dioten ezaugarriak aztertu dira. Horretarako, 11 ikus unitate edo arro homogeneotan zatitu da Legazpiko udalerria, eta bi parametroren arabera balioetsi da unitate horietako bakoitza: natur izaera (paisaiaren balioa) eta herritarren pertzepzioa ("egunerokotasunari" dagokionez, hurbilago duguna eta ikusgarriago dena).
- *Ondorio nagusiak*:
  - *Paisaiaren ikuspegitik balio handiena* duten eremuak honako hauek dira: Aitzondo, Oamendi, Aizeleku, Arraseta, Telleriarte eta Brinkola auzoak, eta Arrolamendi. Balio txikiena dutenak, berriz, herrigunea eta Albaitxuri dira.
  - "Egunerokotasunari" dagokionez: Aizkorri, Korostiaga, Arraseta eta Arrolamendi.
  - Bi elementu horiek (paisaiaren balioa eta egunerokotasuna) gainjartzen baditugu, jarduketak egiteko orduan lehentasunak ondorioztatu ahal izango ditugu, hobekuntzaren, babesaren eta abarren inguruan.



Azken urrats bat gelditzen da (Aranzadiko talde teknikoa horretan ari da orain): *hiru mailen ebaluazio bateratua, mapa bat eta emaitza orokorra lortzeko*.

## Ekintza proposamenak



Inbentarioaren ondorioak ezagututa, Aranzadikoek *ekintzak egiteko proposamen multzo bat* aurkeztu dute, horien bitartez Legazpiko kultur eta natur ondarea babesteko eta balioesteko. Zirriborroa baino ez da oraingoz, eta doitu eta zehaztu egin behar dute.

Aranzadik egindako proposamenek, zehazki, Inbentarioan hautemandako bost eremu edo zona hartzen dituzte:

- *Katalogatutako eremuak (esate baterako, Aizkorri).*
- *Katalogatu gabeko eremuak,* eta, beraz, inolako babesik ez dutenak.
- *Hiri eremua.*
- *Ibaiak, hezeguneak eta urtegiak.*
- *Andeatutako eremuak.*

*Oro har, udalerri osoan aplika daitezkeen* ekintzek osatzen dituzte proposamen horiek.

Ondorengo koadroan jaso ditugu ekintza proposamenak.

| | Aranzadi taldearen ekintza proposamenak |
|---|---|
| *Katalogatutako eremuak* | • Lehorrean (landarediaren bitartez) nahiz uretan (ibaietan), korridore ekologiko funtzional eta jarraituen sorrera bultzatzea. Zehazki, honako helburu hauekin:<br>*Lehorrean*:<br>- Korostiagako habitatak bere horretan gordetzea.<br>- Legazpin ingurumenaren eta paisaiaren aldetik balio handia duten eremuak batzea eta lotzea.<br>*Uretan:*<br>- Esate baterako, bioingeniaritzako neurriak aplikatuz harri-lubetak eratzeko.<br>- Haltzadiak bere horretan gordetzea / hedatzea.<br>- Ibaiertzetan toki hutsak (landarerik gabe) ez uztea, kanpoko espezieak sartzea saihesteko. |
| | • Korostiaga mendia Erabiltzeko eta Kudeatzeko Plana idaztea, inguru horretako habitatak babestu ahal izateko eta andeatutako eremuak leheneratzeko. |
| | • Proposatutako neurriak une honetan prestatzen ari diren Aizkorriko Natur Parkea Erabiltzeko eta Kudeatzeko Planean gauzatzea. |
| | • Une honetan dauden bideak sendotzea eta egiten diren bide berriak kontrolatzea (mendi bide berrien sorrera zainduz, batez ere). |
| *Katalogatu gabeko eremuak* | • Landa eremua zaintzea: administrazioaren eta baserritarren arteko hitzarmenak bultzatzea landa eremuak dauden-daudenean gordetzeko (hesi naturalak sortuz eta zainduz…) |
| | • Eremu interesgarriak katalogatzea eta katalogatutako eremuetarako zehaztutako neurriak aplikatzea. |
| | • Espezie inbaditzaileen arriskuari buruz informazioa eta iradokizunak ematea (adibidez, lorategietarako eskuliburu xume bat prestatuz; edo jabeen laguntzarekin espezie horiek erauzteko ekintzak eginez, etab.). |
| | • Publikoak ez diren lursailetan ingurumena hobetzeko neurriak aplikatzea (jabeekin batera lan eginez eta bertako espezieen landaketa bultzatuz, esate baterako). |
| | • Publikoak ez diren lursailetan bertako espezieen landaketa bultzatzea, sentiberatze kanpainen bitartez, hitzarmenen bitartez… |
| *Hiri eremua* | • Legazpiarrek natur eta kultur ondarearekiko duten sentiberatasuna sustatzea eta bultzatzea, inguru horien ingurumen balioa erakutsiz eta indartuz (esate baterako, habia-kutxak ezarriz, udalerritik hurbil urmael bat eratuz…).<br>• Hiri eremuan ere korridore ekologikoen garapena sustatzea (hirigunea inguratzen duten bi hegiak lotzeko). Horretarako, beharrezkoa izango da parkeak eta lorategiak irizpide hauen arabera planifikatzea eta garatzea. |

| | Aranzadi taldearen ekintza proposamenak |
|---|---|
| *Ibaiak, hezeguneak eta urtegiak* | • Hezeguneei buruzko azterlan bat egitea (kartografia, fauna eta floraren inbentarioa…) eta EAEko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planean eta EAEko Hezeguneen Katalogoan txertatzeko proposamena egitea, modu horretan, jarduketak egiteko eta inguru horiek zaintzeko hainbat jarraibide bermatuko baitira. |
| | • Hezegune iraunkor berriak edo putzu eremuak sortzea, espezie berriak har ditzaten. |
| | • Ibaietako presak funtzionalak diren edo ez aztertzea, arrainek horietatik igarotzeko modua dutela bermatzeko. OHARRA: Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera garatu behar da ekintza hau, eta kontuan izan behar da Legazpiko burdinolen jarduerarekin lotutako ondarea. |
| | • Ibaiertzetako basoen egoera hobetzea urtegietan. |
| | • Urtegietatik espezie inbaditzaileak erauzteko plan bat aplikatzea (arrainak, narrastiak…). |
| *Andeatutako eremuak* (harrobiak eta zabortegiak) | • Harrobi eta zabortegi inguruak leheneratzea (txabolismoa, kontrolik gabeko baratzeak, etab. desagerraraziz). |
| *Oro har, udalerri osoan* | • Inbentarioaren emaitzak Udaleko langile guztiei jakinaraztea (bereziki natur ingurunearekin lotura duten pertsonei: lorezaintza, lanak…). |
| | • Lan berriak abiarazten direnean zainketa lana egitea (kanpoko espezie inbaditzaileak hazteko toki egokiak direlako). |
| | • Kanpoko espezie inbaditzaileen kontra borroka egitea, Udaleko lorezaintza saila parkeetan eta lorategietan eredu izanez. |

Aranzadi elkarteko kideek ekintzak azaldu dizkiguten heinean, Foro honek lan paraleloa egin du: 2008ko maiatzaren 22ko Foroaren tailerrean hurrengo 4 urteetan natur ingurunean garatu beharreko lehentasunezko hainbat ekintza proposatu genituen. Orduan egindako gogoeta gogora ekarriz, Foroak orduan proposatutako ekintzak Aranzadik egindako proposamenetan nola jaso diren ikusten saiatu gara (ikusi 1. eranskina). Aranzadik prestatutako zirriborroan gure proposamen gehienak jaso direla ikusi dugu, eta hemendik aurrera orraztu, osatu eta zehaztu egin beharko dute zirriborro hori, Udalari eman ahal izateko.

## ● Abenduko tailerrera arte, agur

Ekintza proposamenen azalpenak hartu du gaurkoan tailerreko denbora gehiena, eta gai honek beste tailer askotarako hizpidea eman dezakeela iruditzen zaigu; Foro honek ekarpen asko egin ditzakeela iruditzen zaigu, batez ere ekintzei eta horien garapenari dagokienez.

Laster gai honi berriro helduko diogula jakinik, agur esatea besterik ez dugu; 2010eko Agenda 21eko Foroaren azken tailerra izango dugu hurrengoa, eta abenduaren 2an egingo dugu (denbora laster doa, gero!).

Beraz, ordura arte, goza ezazue udazkeneko paisaia eta kolore ederrez!

Eskerrik asko!!!

## **1. ERANSKINA.** 2008ko maiatzaren 22an egindako Agenda 21eko Foroaren tailerraren emaitzak

**Iraunkortasunerako III. Ekintza Plana egiteko, apirilaren 3ko Foroan Legazpiko natur ondareari buruz zehaztu genituen jarduketa proposamenetatik, zein dira, gure ustez, datozen lau urteetan bideratu behar direnak?**

| | Legazpiko **natur ondarea babesteko eta zaintzeko** ekintza proposamenak: | Jasotako botoak: | **Aranzadiren proposamenetan jaso da?** |
|---|---|---|---|
| **1** | • **Aizkorri** eremua:<br>• Udalerriak modu eraginkorrean parte har dezala Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren zehaztapenean eta betetzean.<br>• Udalak eta udalerriak “Aizkorriko Parke Naturalerako atea” izatea bultza dezala. | **18** boto ●●●●●●●●●●●●●●●●●● | Bai |
| **2** | • **Gorostiaga**: Gorostiaga mendiko antolamendu eta kudeaketa plana egin. Mendia babesteko bide berezi bat izateko aukera aztertu. | **8** boto ●●●●●●●● | Bai |
| **3** | • **Urtatzako urtegia**: urtegiaren ingurunea berreskuratzeko eta balioesteko proiektua egin eta gauzatu. | **10** boto ●●●●●●●●●● | Bai |
| **4** | • **Urola ibaia eta arroa**: ibaia eta iturburua babesteko neurriak hartu eta, era berean, natur baliabide horren balio estrategikoa zabaldu. | **12** boto ●●●●●●●●●●●● | Bai |
| **5** | • **Aizkorri-Gorostiaga-Izarraitz korridore ekologikoa** bultzatu**.** | **1** boto ● | Bai |
| **6** | • **Gerriko berdea**: Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean proposatutako gerriko berdea (Legazpiko hirigunearen inguruan 100 metro) egiteko baliabideak jarri. | **7** boto ●●●●●●● | Ez bere horretan. Aranzadikoek uste dute bideragarriagoa dela udalerriko bi hegien arteko zeharkako loturak sortzea, parkeetako landarediaren bitartez... |
| **7** | • **Bideak eta bidezidorrak mendian zehar**: bideak mantentzeko jarduketak bultzatu (gutxienez lurzoru publikotik igarotzen direnetan). | **6** boto ●●●●●● | Bai |
| **8** | • **Eremu zehatzak garbitzeko eta berreskuratzeko ekintzak** gauzatu, horretarako talde zehatzen laguntza bilatuz (adibidez, ehiza-postuen inguruak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin ibaiertzak, ur-ipurtatsaren ekosistema berreskuratu...). | **6** boto ●●●●●● | Bai |
| **9** | • **Hirigunean biodibertsitatea sustatzeko Plana** egin**.** | **4** boto ●●●● | Bai |
| **10** | • Udalerriko natur ondarearen Inbentarioan balore eta ezaugarri bereziak (flora, fauna,...) dituzten Legazpiko eremuak babesteko eta zaintzeko helburuarekin, Administrazioaren eta jabe pribatuen artean **herrialdea zaintzeko hitzarmenak bultzatu**. | **11** boto ●●●●●●●●●●● | Ez |

| | Legazpiko **natur ondarea babesteko eta zaintzeko** ekintza proposamenak: | Jasotako botoak: | **Aranzadiren proposamenetan jaso da?** |
|---|---|---|---|
| **11** | • Administrazioaren, basozainen elkarteen eta/edo jabe pribatuen artean lan egitea sustatu. Helburua: **Legazpiko baso eta oihan-eremuen kudeaketa iraunkorragoa bultzatu**, horretarako ondoko neurri hauek hartuz:<br>• Baso-kudeaketa iraunkorragoa lortzeko aholkuen eta jokabide onen berri eman, eta horretarako dauden laguntzen gaineko informazioa eman.<br>• Zuhaitzak moztu aurretik azterketak egin, mugak eta moduak zehazteko helburuarekin (hasiera batean lan hori basozainen egitekoa da, baina lan hori indartzea komeni dela ikusten da).<br>• Udalak landatu gabe dagoen baso-lurra eros dezala, lurzoru horretan bertako espezieak landatzeko.<br>• Baso-pista gehiago zabal daitezela debekatu/mugatu, eta horietatik dabiltzan ibilgailuen igarobidea kontrolatu.<br>• Hazkunde laburreko espezieen landaketa udalerriaren eremu indartsuenetara mugatu (edo, gutxienez, horren berri eman jabeei).<br>• Legazpiko baso-eremuen bilakaera ikustaraztea ahalbidetuko duten adierazleen kalkulua eta jarraipena egin eta neurriak hartu. | **17** boto | Bai |
| **12** | • Legazpiko natur ingurunearekiko jokabide desegokien edo erasoen aurrean **herritarren "salaketa" eta kontzientzia kritikoa sustatu**, jokabide horiek agerian gera daitezen eta horien aurka hartu beharreko neurriak har daitezen. | **12** boto | Bai (baina "salaketaren" kontua esplizituki adierazi gabe, sentiberatasunari gehiago lotuz) |
| **13** | • **Suteei aurrea hartzeko plan** bat egin, nola jokatu adieraziko duen protokoloa izango duena. | **6** boto | Ez |
| | **Legazpiko natur ondarea zabaltzeko, ezagutzeko eta balioesteko** ekintza-proposamenak: | Jasotako botoak: | **Aranzadiren proposamenetan jaso da?** |
| **14** | • **Legazpiko ondarearen eta dibertsitate natural eta kulturalaren Inbentarioa** egin (mendiak, landareak, animaliak, hizkuntza, toponimia, nekazaritzako ohitura zaharrak, bertako haziak,….).<br>Inbentario horren arabera eta ahal dela lehentasun-mailak adieraziz, herri gisa galtzen utzi ezin dezakegun aberastasun, jakinduria eta memoria hori berreskuratzeko eta gordetzeko ekintzak sustatu. | **11** boto | Egina! (inbentario hauxe da) |
| **15** | • **Zabaltzeko eta sentsibilizatzeko ekintzak** gauzatu:<br>• Erreka eguna, ibaia balioesteko ekintza gisa (jarraipena eman).<br>• Naturaren gaineko argazki-lehiaketa eta/edo ikastaroa.<br>• Legazpiko natur ondareari eta inguruneari buruzko argazki erakusketa, dauden errealitate egokiak eta hobe daitezkeenak erakutsiz.<br>• Irteerak eta txangoak (ikastetxeekin koordinatuz). | **15** boto | Bai |

| | Legazpiko **natur ondarea babesteko eta zaintzeko** ekintza proposamenak: | Jasotako botoak: | **Aranzadiren proposamenetan jaso da?** |
|---|---|---|---|
| | • Legazpin baso-lursailak dituzten jabeen artean lehiaketa antolatu, lursail horiek kudeatzeko jokabide egokiak sarituz.<br>• Urola Garaian biodibertsitateari buruzko lehiaketa sortu bi urtean behin.<br>• 2009-2010 ikasturtean biodibertsitatea aukeratu Eskola Agenda 21eko ardatz gisa, ikasturte horretan udalerrian ere gai horrekin lotuta dauden ekintzak sustatuz.<br>• Aholkuak kontsumo iraunkorrari buruz lehen sektorean. | | |
| **16** | • Legazpiko natur aberastasuna ezagutzera emango duten **materialak, argitalpenak** egin:<br>• Inbentarioaren eredu erraz bat egin, herritarrei zuzenduko zaiena.<br>• Legazpiko bide eta ibilbideen katalogoa.<br>• Egutegiak, bideoak, multimedia tresnak…<br>• Lekuan bertan seinaleak jarri (informazio-panelak, identifikazio-panelak,…). | **6** boto<br>●●●●●● | Bai |
| **17** | • Natur ondarea kudeatzeari dagokionez, **jokabide egokiak zabaldu**; adibidez:<br>• Udaletxeko Nekazaritza batzordean, Legazpiko baserritarrek aukera dute euren ezagutza eta proposamenak konpartitzeko.<br>• Basozainekin eta/edo euren jarduerarekin natur ondarean eragina duten bestelako erakundeekin (adibidez, Iberdrola, basoan jartzen dituen goi tentsioko zutabeak direla eta,…) lan pertsonalizatua egin daiteke.<br>• Eskolako Agenda 21aren bidez ikastetxeekin egin daiteke lan. | **10** boto<br>●●●●●●●●<br>●● | Bai |